

DONOSTIA / Ipuinaren ordua izango da ostegunean Larratxoko liburutegian

DONOSTIA. Ipuinaren ordua bueltatuko da aste honetan Altzara, Larratxoko liburutegira, hain zuzen ere. Ostegunean, arratsaldeko 18.00etatik aurrera, Ipuin desberdinak eta pinpirinak saioa prestatu dute auzoko gaztetxoentzat.

Hiru eta bost urte bitarteko haurrei zuzenduta dago ekitaldia eta, abenduan gaudenez, datozen asteotan kontatuko dituzten istorioak Gabonekin erlazioa izango dute. Hala, hilaren 16rako prestatutako irakurketak, adibidez, Cuentos envueltos para regalar izenburupean, Eguberriak gerturatuko dizkie altzatar gaztetxoei.

Larratxon ez ezik, Tomasene kultur elkartean ere izango da ipuinik datozen egunotan. Din-dan-don! Ipuin on! emanaldia hilaren 15ean (asteazkena) eskainiko dute. Aurrekoak bezala, hiru eta bost urte bitarteko haurrei zuzendutako saioa izango da hori ere.

Auzoko kultur etxeetako ekintzak biderkatzen hasiko dira ondorengo asteotan, Eguberriekin eta oporrekin bat eginez.